

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea etxeak edateko urez hornitzeagatik eta saneamenduarengatik kobratu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari**

Añanako Udalak, 2019ko otsailaren 2ko ohiko bilkuran, erabaki zuen onestea etxeak edateko urez hornitzea eta saneamendua arautzen dituen zerga ordenantza aldatzea eta haren tasak.

Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea hogeita hamar egunez jarriko da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Erabaki honen aurka erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsizat joko da.

Gesaltza Añana, 2019ko otsailaren 5a

*Alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ*